

Maialen Atutxa Basterra, Jon Sánchez Atutxa, Ismene Lázaro Cestona eta Maialen Valle Abrisqueta gara, Durangoko Ibaizabal Ikastolako Gizarteratzeko Goi mailako zikloko ikasleak. Elkarrekin, Ihesbide izeneko Scape Room inklusibo bat sortu dugu, Bilbon. Espazio hau pertsona guztientzat eskuragarri izateko diseinatuta dago.

Ideia hau aukeratzearen arrazoia ziklo honek aniztasun funtzionala izateak aukera moduan bizitzea irakatsi digulako da, eta ez oztopo gisa. Hortaz, gizarteratzailearen begiradatik, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko helburua dugu. Batez ere aniztasun funtzionala duten pertsonentzat, gaur egun adin tarte batetik aurrera ez baitago haien beharretara egokitutako aisialdiko jarduera askorik. Gure ustez, inklusioa funtsezkoa da, eta horrelako ekimenak funtsezkoak dira parte-hartzaile guztien esperientziak aberasteko; aldi berean, indarguneak eta trebetasunak modu dinamiko eta dibertigarrian trukatzeko laguntzen dute. Proposamen honen bidez, jarduera ludikoa eskaintzeaz gain, lankidetzaren eta elkarrekiko errespetuaren gozamen eta ikaskuntza partekaturako oinarri izango dituen gune bat sortu nahi dugu.